

William Mackeyrekin elkar hizketa:

"Hizkuntz gaitasuna da faktore erabakitzailea"

William Mackey quebectarra munduko soziolinguistika ezagunenetakoa dugu. Laval-eko unibertsitateko irakaslea da gaur egun eta hainbat gobernurentzat ere egin izan du lan hizkuntz politikarako aholkulari gisa. Ehundaka artikulua eta dozenaka liburu idatzi du eta Euskal Herria ere izan du zenbaitetan aztergai. Luze ihardun dugu berarekin elkarriketa giroan. Batez ere hemengo egoera eta arazoez ihardun dugu, baina baita guretzat ikaspidetara modura baliagarri gerta dakizkigukeen Kanada eta Irlandako esperientziez ere: hizkuntz trebetasunaren garrantzia, gizarte mugimenduak eta administrazioa, hizkuntzaren transmisioa familian, irakaskuntza,... Horiek guztiak eta gehiago aurkituko dituzte irakurleak, betiere maisuaren jakituriaren emaitza.

William Mackey of Quebec, is one of the foremost sociolinguists in the world. He is currently a professor at the University of Laval and has acted as a consultant for language policy. He is the author of hundreds of articles and dozens of books and has also done research on the Basque Country. We have had a long conversation with him in a relaxed setting. We are especially concerned with our local situation and problems but also concerned with experiences in Canada and Ireland which could serve as a learning model for us: the importance of language skill, social movements and administration, language transmission, language transmission in the family, teaching, etc. The reader will be able to find all of this and more from the perspective of a knowledgeable master.

GALDERA: Instituzioen lana ezinbestekoa da, gizarte mugimendua bezalaxe, biak osagarri izan behar dute. Baina nola artikulatu hori?

William Mackey: Hasera haseratik argi eta garbiesan beharra dago hizkuntza bat ez dela hitz egiten hitz egite hutsagatik, hizkuntza ikastarotan ez bada behintzat. Euskararen egoera minorizatuaren dauden hizkuntzen kasutan, beharrezkoa da jarreraren konprometitu bat hizkuntza minorizatuaren erabiltzeko. Horretan ez dago zalantzarik.

Illo honetan, gizarte mugimenduen lanetako bat, euskara era naturalean erabiltzeko guneak sortzea da. Euskara normaltasunez erabiltzeko egoerak aurkitu edo sortu egin behar dira. Egoera hauek, euskararen kasuan egon badaude, zenbait kasutan edo lekutan, solaserako hizkuntza normala dela ikusten baitugu. Hortan datza koxka, egoera natural horiek sortzeko bideetan. Nire ustez, hemen urrats hori emana duzue. Badira komunitate eta herri euskaldunak non euskal hiztunak gehiengo diren eta gainera "D" ereduak eskolak dituztenak, hau da, eskolarizazio hizkuntza normala euskara dena.

Hortik aurrera zer gertatuko den ikustekoa da. Nik hau hartzen dut gizarte mugimenduen lanaren abiapuntutzat. Euskararen erabilera normala den gune horien kontrola edo, hobeto esanda, segimena ziurtatu egin behar da. Eta hori, egin egiten dela uste dut.

Hala ere kontutan izan behar da hizkuntzaren erabilera normal hori adinarekin ere oso lotua doala. Joera hori normala izaten da 10-13 urte bitartean, baina gero aldatu egiten da eta ondoren erdara bilakatzen da solaseko hizkuntza normala gazteen artean.

Gizarte mugimenduen lanetako bat, euskara era naturalean erabiltzeko guneak sortzea da. Euskara normaltasunez erabiltzeko egoerak aurkitu edo sortu egin behar dira.

Zergatik gertatzen da hau eta aldatu ote daiteke? Zer baldintza edo testuinguru sortu behar dira hau aldatzeko? Izan ere, erabileraren testuingurua izango baita hizkuntzaren normalizazioa kontrolatuko duena, hizkuntzaren erabilpena kontrolatuko duena. Testuinguru horretan garrantzia handia du gizarte mugimenduen lanak.

Gazte hauek hazten direnean eta komunitate haundiago batean integratzen direnean hizkuntzaz aldatzen dute. Agian, adin honetan mentalki etxeko lotura afektibotik aterata eta beste ingurune zabalera joaten direlako da, etxetik kanpo, familatik kanpo, beste mundu bat badela oharitzen baitira. Hor, beste ingurune batean integratzen dira non hizkuntza normala menperatzailea den. Ikusgarria da gazteek hizkuntzaz nola aldatzen duten ikustea. Horregatik gazteen inguru sozial horren euskalduntzeak garrantzi berezia du.

G: Eta helduago egiten direnean, berriz itzultzen al dira beren berezko hizkuntzara? Hemen, adibidez, horrelako zerbait antzematen hasiak gara euskaldunen artean...

W.M.: Ez daukat dokumentazio aski horretaz baina gerta daiteke, noski. Egoera hauek, nere ustez, sakonki aztertu behar dituzue hemen, etorkizuna jokatzen baita.

G: Gaztetan euskaldundu ez diren edo hizkuntza galdu duten gazte horiek

helduak izaterakoan hizkuntzaz aldaraztea posible al da?

W.M.: Kanadako esperientzian oinarrituta esan dezaket Gobernuak sekulako dirutzak gastatu dituela elebitasunera iristeko helburuz, ingelesa hitz egiten duten helduak frantsesa lan hizkuntza bezala erabil dezaten, baina ez da benetako arrakastarik izan. Zergatik? Oso oso zaila delako hizkuntza batean profesionalki hezitutako heldu bat hartu -eta hau da funtzionari gehienek kasua- eta beste hizkuntza batean funtzionaraztea. Oso oso zaila da eta salbuespen batzuek gain, gobernuak ez du lortu.

Honen zergatiak bilatzen saiakerakegin dira eta arrazoi asko aurkitu ere. Hala ere, test psikologikoetan oinarrituz arazo nagusia blokeoan datzala esan genezake. Pertsona heldu gehienek eskolan ikasten dute hizkuntza eta traumatizatuta daude etengabe zuzenketak jasan behar izan dituztelako ikasketa prozesuan.

Hau ez da noski, oroimen positiboa beraiantzat, alderantziz. Horregatik, antzeko egoera berriro bizi behar izatea gogoz onartzen ez duten esperientzia traumatikoa da. Eta hor blokeoa sortzen da.

G: Zer egin daiteke herritarrek hizkuntz aukera egiterakoan euskararen alde jokatuz?

W.M.: Euskaraz ulertzen baina gaizki hitz egiten duen populazioa konfidantza-

Ikusgarria da gazteek hizkuntzaz nola aldatzen duten ikustea. Horregatik gazteen inguru sozial horren euskalduntzeak garrantzi berezia du.

Oso zaila da hizkuntza batean profesionalki hezitutako heldu bat hartu -eta hau da funtzionari gehienek kasua- eta beste hizkuntza batean funtzionaraztea.

ren bidez eskuratu behar da: Euskal Telebista ikus dezan, adibidez, eskaintza ona izan behar da ETBk eman behar duena, euskarazko kanalak oso ona izan behar du kalitatearen eremuan.

Suposa dezagun euskara nahiko ondo ulertzeko gai direla hiritar horiek eta telebista-hizkuntza hautatzeko aukera dutela. Zerk erabakiko du populazio horren aukeraketa? Edukiaren kalitateak, zalan-tzarik ez. Euskaraz gai interesgarriagoak badituzu, euskara guztiz ulertu ez arren, aukeratale bista euskaldunaren alde egingo duela ziurtatzen dizut. Emanaldi interesgarriak izatean dago gakoa. Horrela jokatu beharra dago. Praktiko izan behar da. Jendeak ez du, oro har, euskara hizkuntza berezia delako erabiliko. Oso jende gutxi egingo du hori, Irlandan bezala, egingo du baina... Hizkuntzak erabat beharrezkoa izan behar du.

G: Lege aldetik oso eztabaidagarria omen da euskararen beharra ezartzea.

W.M.: Horrek legalki eztabaidak sortuko ditu, noski. Estatu espainiarreko herritarrek gaztelania erabiltzeko eskubidea dute eta Euskal Herria estatu espainiarreko parte denez, euskal herritar bakoitza "hiritar espainola" da ere eta, horrenbestez, gaztelaniaz egiteko eskubidea du. Baina horrek ez du kentzen zuek aipatutako zerbitzuak euskaraz burutzeko.

Katalunian halako hiruki teorikoa finkatu dute: testuingurua, jarrera eta hizkuntza-

**Euskaraz gai interesgarri-
goak izatean dago gakoa.
Praktikoa izan behar da.
Jendeak ez du, oro har,
euskara hizkuntza berezia
delako erabiliko.**

ren erabilpenaz osaturikoa, eta oso argi agertzen da hiruki honetan, dena elkar loturik dagoen arren, hizkuntz gaitasunean edota trebetasunean dagoela faktore erabakitzailea. Nik gauza bera ikusi dut Irlan-
dan eta baita beste lekutan ere, Quebec-
en adibidez.

Bi solaskide badituzu eta biek gaitasun berdintsua badute, gaitasun maila zehatz batetik aurrera -normalean maila nahiko handia- biak edozein hizkuntzan hitz egingo dute, baina baita bertakoan, hemengo kasuan adibidez, euskaraz.

Aldiz, euskarazko gaitasun maila desberdina badute eta gaztelerazkoa berdintsua, maila berdina duten hizkuntza aukeratu dute hitz egiteko, hau da, kasu honetan gaztelaniaz hitz egingo dute kon-
tutatu gabe ere. Beste era batetan esan-
da: hizkuntz aukeraketa gaitasun erlati-
boko afera da gizaki elebidunengan.

**G: Baina hizkuntza ez da aukera per-
tsonala soilik, testuinguruak ere gogor
jokatzen du horretan...**

W.M.: Bai noski. Ez da soilik aukera pertsonala, testuinguru zehatza dago beti. Testuinguruak ere gogor jokatzen du hiz-
kuntz aukeran. Ildo horretan Instituzioek
eta gizarte mugimenduek egin dezaketen
gauza nagusia, hain zuzen, euskararen
aldeko testuinguru horiek sortzea da eta
herritarrek gaitasun maila egokia badute,
euskaraz arituko dira.

Eta hori erraza ez den arren, herritarren
hizkuntz gaitasunak baino eragin txikia-
goa du, zeren eta oso zaila da herritarrek
ezagutzen ez duten hizkuntz batean edo
eroso sentitzen ez diren hizkuntza batean
elkarrekin hizkuntza horretan hizketan jar-
tzea.

Baina herritarrak guztiz elebidun dire-
nean eta bi hizkuntzak ondo menperatzen
dituztenean, orduan testuinguruak eraba-
kitzen du hizkuntz hautaketa. Testuingu-
rua, beraz, erabakiorra izan daiteke hiz-
kuntza baterabilitzeko aukera egiterakoan
batez ere zonalde euskaldunenetan.

**G: Zeintzuk dira testuinguru horietan
eragiten duten elementuek?**

W.M.: Beno, eskolako testuingurua,
euskaraz iharduten duten udalen testuin-
gurua, komunikabideena,... Testuinguruak
hizkuntza baliagarria dela frogatzen ez
badu, ez dago zer eginik.

Nire kide batekin aritzerakoan, hiru hiz-
kuntzatan lan egiteko aukera izaten dugu.
Baina badago emakume bat, nire lanki-
dearen asistentea, eta gurekin egoten
denez zein hizkuntzatan lan egitea nahia-
go zukeen galdetu genion. Frantsesez
erosogo sentitzen zela esan zigun. Gau-
zak horrela, guztiak eleanitzak izanik, hiz-
kuntza bakarraren aukera egin genuen.

Baina jokabide hau ez da landua edo
pentsatua, oso inkontzientea da. Nire an-

**Dena elkar loturik dagoen
arren, hizkuntz gaitasunean
edota trebetasunean dago
faktore erabakitzailea. Nik
gauza bera ikusi dut Irlan-
dan eta baita beste lekuetan
ere, Quebec-en adibidez.**

Hizkuntz aukeraketa gaitasun erlatiboko afera da gizaki elebidunengan.

tzinako irakaslea zenaren teoria gogora ekarriko dut. Liburu bat idatzi du horretaz, mintzairaren psikobiologiak. Nire irakasleak Zipf zuen izena eta berak asmatu zuen Zipf Legea deritzona.

Harrera eta ekoizpenaren arteko komunikazio-ekonomia izendatutako bere teoriaren arabera bi pertsona, bi institutu edo edozer -oso abstraktuan uzten zuen- daudenean eta beharra komunikatzea denean, inkontzienteki beren mezua helarazteko bitarteko eraginkorrena aukeratzeko da, eta hau beste hainbat alorretarako era baliogarria den teoria da, telefonorako, telegraforako, eta baita hizkuntzarako...

Aipatu teoria honetan oinarrituz, entzuten duenak, hau da, agente hartzaile denak ahalik eta esfortzu gutxien egitea nahi du; gauza argiak, interesgarriak, errazak izatea nahi du. Bestalde, mezua bidaltzen duenak ere ahalik eta esfortzu txikiena egitea nahi du bere mezua helarazteko orduan. Hizkuntz hautapenean fenomeno honek bete betean funtzionatzen du, jakabide guztiz inkontzientea den arren.

Teoria hau elebidunei aplikatuz gero, eta beren jarrera behatzen baduzu -eta nik egunero behatzen dut ezen etxean bost hizkuntza hitz egiten ditugu- guztiz inkontzienteki mezua igortzeko hizkuntza eraginkorrena aukeratzen da.

G: Badaude, bestalde, faktore politikoak edota ideologikoak hizkuntza baten aukera egiteko orduan. Zein indar dute?

W.M.: Hemen badago faktore ideolo-

giko bat zuek kontzienteki egiten baituzue hizkuntzaren aukera. Quebec-en ere gertatzen da anglofonoekin; beren artean publikoki hitzegin behar dutenean ingelesez hitzegingo dute, ez komunikatzeko, beren hizkuntzan egiteko baizik.

G: Herritarrak hizkuntz-aukera egiterakoan hizkuntza minorizaturantz jotzea hautapen kontzientea izan daiteke eta hor, noski, ahalegin erantsia dago.

W.M.: Noski, esfortzu erantsia egiten da. Baina hizkuntza baino gauza inportanteagoak daudenean, beste hizkuntzara pasako dira. Adibidez, norbait itotzen ari bada eta laguntza eskatzea nahi badu eta geste guztiek euskaraz ez badakite, agian ito egingo da, ahotik ateratzen dena burura etortzen diren hitzak baitira.

Baina nire ustez, aukerak kontzienteki egiten diren uneak badira. Hizkuntz politikari dagokionean adibidez eta hizkuntz politikaz ari naizenean, ez naiz Estatuari dagokionean soilik ari; gizabanakoak duen jarrera ere hizkuntz politika da.

Adibide bat emango dizuet: hemen hizkuntz politika bat baduzue; familiak hizkuntza ahulena babestu behar duela erabaki duzue eta, horretarako, etxeko hizkuntza bakarra izatea erabaki duzue, egoera minorizatueta familiako elebitasunak nahitaez elebakartasun dominantera baikaramatza.

Testuinguruak ere gogor jokatzen du hizkuntz aukeraren. Ildo horretan instituzioek eta gizarte mugimenduek egin dezaketen gauza nagusia, hain zuzen, euskararen aldeko testuinguru horiek sortzea da.

Hizkuntza ahulena aukeratzea hautapen kontzientea da. Hau maiz gertatu ohi da haurrak jaiotzen direnean. Anderea haurdun dagoenean hizkuntza aldatzen hasten da etorriko den haurraren hizkuntza prestatzen hasteko. Jaiotzen denean, haurrak hizkuntza bakarra entzuten du, eta ez bi.

Ohitura inkontzientea bihurtzen da haur honi beti hizkuntza berdinean mintzatzea. Eta horrela famili elebakarrak sortzen dira. Izan ere, egoera minorizatueta familia elebiduna sortu nahi bada ere, elebakarra izaten amaitzen du gehienetan, hizkuntza dominantea inposatzen baita azkenean.

Hau da, euskara mantentzea nahi dutenek kontzientziatzeko erabil daitekeen beste argudio bat, etxean elebidunak ez izatea da, familia elebakarrak osatzea.

Eragin haundia izan dezakeen neurria da hau, etxean euskaraz elebakar den biztanlegoa zabaltzen bada, bertako haurrek, ikasleek, etxetik kanpo ateratzen direnean gazteleraz egitera behartuak izango diren arren, beren bizitza osoan euskara mantenduko baitute, etxean gutxienez hizkuntza dominantea euskara izango baita.

Horrelako aukerak dira errentagarriak. Baina ahoa irekitzen duzun bakoitzean hizkuntza honetan edo bestean mintzatzea erabakiko duzula esatea alperrikakoa da eta gezurra.

G: Alderdi politikoei eta erakundeek

Egoera minorizatueta familia elebiduna sortu nahi bada ere, elebakarra izaten amaitzen du gehienetan, hizkuntza dominantea inposatzen baita azkenean.

Euskararako hizkuntz politikak erabat asmatu izan du hasiera hasieratik ahalegin izugarria eginez irakaskuntzan. Erabaki guztiz zuzena izan zen.

jarrera ezberdina baldin badute bertan dauden bi hizkuntzekiko ez al dute jendea bi hizkuntzetatik bat aukeratzera bultzatzen elebitasun egoeretan? Hau da, adibidez, Irlandaren kasuan, alderdi irlandarrek ez dute enplegu ona eman hiritarrei hizkuntzarekiko izan duten jarraitarekin, ingelesez funtzionatu baitute.

W.M.: Bai, baina Irlandan bazegoen ingelesez funtzionatzeko arrazoi bat: gehiengoak ez zekien irlandaraz hitz egiten. Biztanlegoaren gehiengoak ekialdean bizi da eta anglofonia da; Dublin hiri anglofonia da. Irlandaraz funtzionatuko balute, inork ez lieke ulertuko.

Bertan nintzen, Irlandan, independentziaren egunean, 1922an. Urte batzuk beranduago Artzapezpiku-Kardinalarekin topaketa izan nuen; elkarrekin bazkaltzen ari ginen beste bikote batekin eta zera galdetu nion: Kontzilio Batikanoan zergatik ez da hautatu meza irlandaraz ematea, -ordurarte latinez burutzen baitzen- ingelesaren orde? Hiritargoak ulertzea zen helburua -erantzun zidan- eta hiritarrek ez zuten irlandera ulertzen.

Beno, latina ere ez zuen ulertzen, ezta? Horrela, gutxienez, irlandarerekiko mistika piska bat izan zezaketen ezta? Baina ez zuten hori egin. Kontua, gaitasuna, trebetasuna, izatea hizkuntzan, hori da dena. Gaitasun maila ona baduzu, horrelako erabakiak askoz errazagoak dira.

Horrexegatik euskararako hizkuntz politikak erabat asmatu izan du hasiera hasieratik ahalegin izugarria eginez irakaskuntzan. Erabaki guztiz zuzena izan zen.

G: Dirulaguntza publikoak zernolako lekua edo garrantzia izan behar du hizkuntzaren normalizazio plangintzan ?

W.M.: Sekulako garrantzia du. Ezinbestekoa da. Baina oso gaztetatik hasi behar da. Hiritarrek aisia, heziketa kulturala, ... euskaraz jasotzeak garrantzi izugarria du. Baina haurtzarotik hasi beharko litzateke. Irakaskuntza egon badago euskaraz, baina bereizten al da irakaskuntza eta heziketaren artean dagoen ezberdintasuna ? Inportanteena bigarrena baita.

Euskarak milaka urteetan bizirik iraun du ahozko hizkuntza gisa, belaunaldiz belaunaldi, gurasoek haurrei helaraziz. Eta nolatan, orain, mekanismo horrek huts egiten du edota gelditzen da? Elementu askok eragiten dute gertakizun horretan, baina badago bat erabakiorra: belaunaldi batetik bestera hizkuntzaren ahozko transmisioa, ahozko tradizioa, ipuinak, kontakizunak eta guzti horiek, behin eta berriro belaunalditan zehar errepikatuak izan direnak, amaitu egin dela orain eskolarizazioaren ondorioz. Eta aurreko kultur transmisio hori ez du ezerk ordezkatu. Hau da, aipatu tradizio guzti hori desagertu egin da bapatean. Pentsatzen dugu guzti hori berreskuratuko dugula eskolaren bitartez, hizkuntza idatziaren bitartez, euskara idatziaren bitartez hain zuzen. Baina ez ote

Irakaskuntza egon badago euskaraz, baina bereizten al da irakaskuntza eta heziketaren artean dagoen ezberdintasuna? Inportanteena bigarrena baita.

Hizkuntza eta beste lau faktore gehiago biltzen dituen etnia baldin baduzu, hizkuntza indartuagoa suertatuko da.

zen naturalago izango euskal tradizioarekin jarraitzea eskolarizazioaren bidez ekin beharrean?

Baina badugu esperientzia orain hori birsortzeko aukera. Orain badugu, eskolaren bidez, ahozko tradizioaren transmisioari ekinez lan egiteko parada. Zeren, gaur liburu baten prezioaren zati batekin kasetekin lan egiterik badago, merkeagoa da liburu bat baino. Esperientzia honen bidez, ikasleek orduak eta orduak dituzte euskara entzuteko. Eta zer egiten dute? Hizkuntza ikasten dute? Hizkuntza estudiatzen dute? Ez horixe! Baina hori bai, hizkuntzaz jabetzen dira. Hizkuntzan jartzten dute arreta? Ez horixe! Historian, kontakizunean baizik. Eta horrela antzinako hizkuntzaz bustitzen dira, izugarriko hiztegia eskuratuz.

Ez dut ulertzen eskoletan horrelakorik ez egitea. Gizarteak, kostu txikiaz gainera, hori bultzatzen dezake. Ez dakit dagoeneko badagoen historia kontagile elebarririk euskaraz.

G: Badago, bai. Baina komunitate txikia gara eta bada itzala egin diezagukeen beste hainbat hizkuntzetan garratzen den kultura.

W.M.: Ezingo duzu hori ekidin. Ez dago zereginik. Jendea, bigarren mailako eskola utzi aurretik, kosmopolita da iada. Laguntza eskatzen duenari lagundu behar ko zaio. Zenbaitzuk kosmopolitak izango dira, gero eta gehiago, baina normalean euskaldunak izatea da zuen nahia.

G: Nola lotzen dituzu etniak eta hizkuntzaren berreskurapena?

W.M.: Etnizitatea, kontzeptu guztiz erlatiboa da. Badira etnia batzuk besteak baino etnikoagoak direnak. Komunitate juduan adibidez, badituzu ezaugarri oso oso judutarrak dituzten juduak eta baita ere beste batzuk, aldiz, gutxiago dituztenak. Gauza berberak balio du kanadiarrentzat, irlandarrentzat eta agian euskaldunentzat ere.

Oso erlatiboa da. Etnizitatearen intentsitatea handitzen duten faktore asko dago: hizkuntza, erlijioa, arraza zentzu genetikoa, portaerak, jokabideak, kultura literarioa, endogamia, -oso inportantea... Guzti honek intentsitatea ematen du. Gero eta elementu gehiago bildu etnia baten, orduan eta indartsuagoak izango dira berarek. Beste era batera esanda, hizkuntza eta beste lau faktore gehiago biltzen dituen etnia baldin baduzu, hizkuntza indartuagoa suertatuko da.

Kanadan egiaztatu ahal izan genuen hori. Katolikoek ez zuten protestanteekin ezkontzerik exkomulgatzen zituztelako. Quebec-en katolikoek gehiengoa frankofonoa zen. Jendea frankofonoen artean ezkontzera behartuta zegoenez, horrek hizkuntza indartu egiten zuen.

Badaude bere buruaskitasuna duten komunitate euskaldunak, etorkizuna dutenak, euskaraz bizi direnak. Kasu hauek beraiekin artean ezkontzeko aukerak emango balira, komunitate hauek handi litezke.

G: Gizarte mugimenduaren garrantzia hizkuntzaren berreskurapenean zenbaterainokoa da?

W.M.: Oso garrantzitsua da arrazoi ximple bategatik: estatuak ez dauka hizkuntzaren monopolioa eta politika bat gauzatzeagatik ez du esan nahi hizkuntzaren

Estatuak ez dauka hizkuntzaren monopolioa eta politika bat gauzatzeagatik ez du esan nahi hizkuntzaren gan halako monopolioa duenik. Gizarte bera da hizkuntzaren jabe.

gan halako monopolioa duenik. Gizarte bera da hizkuntzaren jabe.

Baina ezin duzu gizarte bat antolatzea behartu. Elkarte boluntarioak askotan eraginkorrak dira motibazioa eta gogoia dutelako. Elkarte hauek babesa eta laguntza beharko lukete jaso.

Ugaritu egin behar dira. Horrelako zenbat dauden Quebec-en!

G: Eta gobernuak horrelako elkar-
teak bultzatzen al ditu?

W.M.: Bai, bai, eta elkarte hauen koordinazio bat ere dago.

Horrelako mugimendu asko dago. Quebec-en frantsesaren aldeko mugimendua indartsua da. Badaude diru laguntza jasotzen dutenak eta gobernuaren aldetik laguntza zuzena jasotzen ez dutenak. Mugimendu oso militanteak dira eta Gobernuaren hizkuntz politikarekin desadostasunak izan ditzakete behar adinako zorrotasuna ez duela pentsatzen dutelako. Baina noski, gobernuak ezin ditu legearen aurka iharduten duten mugimenduak lagundu.

Itzultzailea: Arantxa Manterola